

Galdera

* *Itxaroten zaituztegu* ala * *itxarongo zaituztegu*: zein da zuzena?

Erantzuna

"zuen zain gaude / gaituzue", "itxaroten dizuegu".

1/ Lehenik eta behin, guk '**zain egon**' aditz-lokuzioa hobetsiko genuke; izan ere, maizago erabiltzen da gutunetan, deialdietan eta antzeko testuinguruetan:

*Zatozte gurekin Euskal Eskola Publikoaren festa handira. **Zuen zain gaude!** / **gaituzue***

2/ Erregimena:

'itxaron' aditzak NORK NORI erregimena du, objektua biziduna bada:

* Luzaro itxaron **dugu** Maddi. (←Luzaro itxaron **diogu** Maddiri.)

* Etxean itxarongo **zaituztegu**. (←Etxean itxarongo **dizuegu**.)

Bestela, NORK ZER izan ohi da:

*Itxaroten **dut** hilen piztuera.*

*Hitzaldia amaitu arte itxaron **zuten**.*

3/ Aspektua:

1.1/ Erabilera egokia: gutunetan eta idazki formaletan (egiaztagirietan, aginduetan, xedapenetan...) maiz erabiltzen dira -TZEN aspektu-markadun formulak.

Euskaltzaindiaren [Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa](#) liburuan hauxe dio:

«Testu hauek, behar diren testuinguruetan eta baldintzetan erabilia, esan ez ezik, **EGIN EGITEN DUTE, GAUZATU**: bataiatu, barkatu, ezkondu, agindu, ebatzi, arautu...

Formaz, aditz **GAUZATZAILEA [PERFORMATIBOA]** dute muin –aditzak esaten duena **EGITEN DU** testuak–, eta lehen pertsonan joan ohi da, indikatiboko orainaldian, eta -T(Z)EN atzizkiaz.»

Gutun honen bidez jakinarazten dizut...

Zuregana jotzen dut (eskolan daukagun arazo baten berri emateko, adibidez)...

1.2/ Kalko okerrak: -TZEN aspektu-marka erabilia (gaztelaniazko orainaldi historikoaren kalkoak):

* Irekitzen didazu atea? (←Irekiko didazu atea?)

* Ikusten dugu ETBko pelikula gaur gauean? (←Ikusiko dugu ETBko pelikula gaur gauean?)

* Bixente Ameztoi margolari surrealista 1946an **jaiotzen da**, Donostian, eta 2001ean hil, Villabona-Amasan. (←Bixente Ameztoi margolari surrealista 1946an **jaio zen**, Donostian, eta 2001ean hil, Villabona-Amasan.)

* Plazan itxaroten dizuet. (←Plazan itxarongo dizuet.)

4/ Zenbait adibide:

● [Sustatu.eus](#) – "Euskal eskola publikoan **zuen zain gaude**: Zatozte gurekin!"

● [EHU iragarki-taula](#) - "zikloaren laugarren eta azkena ibilbidearekin **itxaroten dizuegu**, Getxoko Punta Begoña Galerietan".

5/ Gehiago jakiteko:

● Euskaltzaindia - [39. araua](#) (Zenbait aditzen erregimena)

● Euskara Batuaren Eskuliburua [itxaron](#)

● Euskara Batuaren Eskuliburua [aditzaren aspektua eta kalkoak](#)

● [Orotariko Euskal Hiztegia \(OEH\)](#)

● *IRALE Kontsulta-zerbitzua* - Argitutako zalantzak / ['Deiari itxaron' ala 'deia itxaron'?](#)

● *IRALE Kontsulta-zerbitzua* - Argitutako zalantzak / ['Idazkietan: 'zuregana jotzen dut' ala 'zugana jo dut'?](#)

Oharra: Ixartxoak (*) adierazten du ez dela zuzena.